

Saltzaileak, «eskuak lotuta»

Denen ahotan dabilen arazo edo ika-mikaren beste alderdia dendariak dira. *Botilatzarra* egiten duten gazteek saltoki handietan nahiz denda txikietan erosten dituzte edariak. Dendek adin txikikoei edari alkoholodunak saltzeko debekua dute, eta erosle guztiei nortasun agiria eskatzen dietela argitu digu saltoki handi bateko dendari batek. Haatik, hori ez da gazteentzako eta, batez ere, adin txikikoentzako oztopo: «Beti bilatzen dute 18 urte dituen gazteren bat, eta pertsona berak koadrila askorentzako erosketak egiten ditu. Saltokiaren kanpoan edo kutxan bertan dirua bildu eta barrura sartzen da edaria erostera», aitortu digu saltzaileak. Inoiz adineko jendeari ere eman izan omen diote dirua edariak erosteko.

Saldutako edari horietako askok adin

txikikoen eskuetan amaituko dutela jakin arren, adin nagusikoei eskatzen dutena ematea da dendarien eginbeharra, eta, beraz, saltzaileek «horren aurrean eskuak lotuta» dituztela aitortzen digu dendariak. Normalean, hamar bat pertsona elkartu, eta, edariez gain, nahasketak egiteko litro eta erdiko ur botilaren bat erosten dutela argitu digu dendariak. Gehien saltzen duten edaria, berriz, likoreak dira —freskagarriekin nahasten dituzte—: vodka, whisky, ginebra... «Baina, egia esan, berdin zaie. Likore bat amaitzen denean, beste edozer hartzen dute».

Botilatzarra debekatzeko ahaleginek, ordea, ez dutela eraginik izan dio saltzaileak: «Jende kopuru bera dabil, ez gutxiago ez gehiago».

Alkohola festa giroko uhinen erritmora

 **aitor renteria**

Litroa, dohaike, litroa izanzen da han eta hemen. Baina *litrona* edo dena delakoaren testuinguruak arrunt beste-lako bihur dezake edateko ekintza.

Edateko molde ugari daude, eta sosisik ez duten gazteek ostatutik at edateak ez du nehor harrituko. Alta, ostatutik kanpo nola edaten duten aztertzea izan daiteke hainbat joera ulertzeko kakoa.

Frantzian, Akizetik gora bederen, ez da herriko bestarik ospatzen. Taldeak ez dira bertze osotasun batean txertatzen, gazte talde bakoitzak bere bidea dagi.

eskola egunaren bezperan, elkarrekin bildu eta han-hemenka ikus daitezke gazteak hirian zehar, alkohol azkardun botilak dituztelarik lagun. Baina astean zehar edateko ohiturarik ez dutenez, poteorik ezagutzen ez dutenez, mugarririk ez dakusate, zernahi egin daiteke. Denbora dute aitzinean, eta eskuetan mozkortzeko lanabesak. Ez da harritzekoa, beraz, ondorioak bortitzak izatea: erasoak, gatazkak eta abar.

Bestak, hala ere, badu muga bat: tenore edo ordutegia. Ostatuak, berantenez, goizaldeko 02:00etan hesten dituzte, eta gazteek gaua ustiatu behar dute zorigaitzezko tenorea heldu aitzin.

Gazteak: «Zerbait egin behar da, baina adina kontrolatzea oso

zaila da, edaria ateratzeko beti moldatzen baita jendea»



Eta taldeak ere ez du neholako ezaugarriarik, elkarrekin egotea ez bada. Talde barnean, uharte tipiak dira taldekideak.

Urtea, bestarik gabe, itsas barea bezalakoa da. Alta, gazteek uhainak behar dituzte, gorabeherak. Eta uhain orok du zartatu behar. Horrelako egoera susma daiteke Baionan ere, bereziki urteko une jakin batzuetan. Lehenik, ikasleen kurtso hastapena aipatu beharko litzateke. *Bizouta*-

ge edo delako erritu iniziatikoa. Ikasle berriek ikasle zaharrenean gehiegikeriak jasan eta taldeka biltzen dira. Hirigunetik hurbil dauden toki bakartuak izaten dira edateko tokirik preziatuenak, batetik, pentzeko xakostia balitz bezala, gordagia eskaintzen dietelako; bertzetik, behin mozkortutakoan, giroa dagoen tokia eskura dutelako.

Hego Euskal Herrian ez bezala, Ipar Euskal Herrian ez dago gazteen artean arno eta garagarnoaren kultura. Poteoa bera abertzaleen giroan baizik ez da ezagutzen. Hurrupaldia, edo aperitifa, gin, whisky, ricar eta gainerateko alkohol azkarrez egiten dute, bai gazteek, bai helduek ere. Horrez gain, gizarte eta toki guzietan bezala, moda fenomenoak agitzen dira, egun merxika eta sagar likoreek bizi duten arrakasta lekuko.

Sosik ezean, gazteek saltegi handietara jotzen dute. Bakoitzak alkohol botila bat erosi eta arkupe, parke, aparkaleku edo hautatu tokietan biltzen dira. Arrail-arrailak daudelarik, hirigune edo kantaldira doaz.

Ikasturteak berak ez du Hego Euskal Herriko erritmo bera. Gabonez eta Pazko oporrez gain, bertze bi oporraldi dituzte Ipar Euskal Herriko gazteek, azaroan eta otsailean. Aldi oro, azken

Une berean, euskal kulturen murgildurik dauden gazte taldeek bertze eredu batzuk dituzte, irekiagoak, jendekoiagoak. Urtean zehar, harremana dute auzoekin, jendeekin. Edatea ez da mozkortze prozesu hutsala, giro batean sartzeko giltzarria baizik. Horrela aise sortzen dira gune bereziak, kultura ezberdinetako jendeak bederazkatuz. Hala ere, besta egiteko nortasun ezberdinak metro koadro gutxitan uztartzen dira, edo, zehatzago errateko, une berean abantzu toki berean daude, gehientsuenetan nahasi gabe, halarik ere.

Alabaina, urteko une eroena Baionako bestetan izaten da. Kanpoko jende anitz jiten da, Frantziatik bereziki. Hori dela eta, asteburuan jendez mukurik beteak dira Baionako karrikak. Egunean zehar euskal giroa nagusi bada ere, gauak ez du nagusirik, eta moda gertakari bereziak bizitzen dira. Azken bi urte hauetan, izugarritzko gazte tropak biltzen dira garaian frantses izena zaukan eta gaur egun Iban Bustintza deritzen plazan. Ondoko saltegiatan sangria botilak litroka eros baditzaizkete ere, etxetik ekarritako botilak dituzte gazteek esku artean. Gaua heldurik, erritual berezi bati ekiten diote, *striptease* edo pikarrai kolektiboa dei daitekeena bururatzen baitute. Ortzirale eta larunbat arratsetako fenomenoak izaten da. Tostaraino beteak dauden gazteak, ondoko etxeetako leihoetara, telefono kabina eta zuhaitzetara igo eta biluzten dira, behean daudenek txalotzen dituztela.

Bertze bitxikeria bat, edo bai bederen berezitasuna: gazte hauek, ostatu-ara sartzen direlarik, ez dute edaria taldean eskatzeko ohiturarik. Bakoitzak berea eskatzen du, eta berea ordaintzen.

Usu ikus daiteke 15-20 gazteko taldea eta bizpahiru baizik ez edaten. Ostatuan garestiago baita.

ztia «edate-

giten dutela

k

netan elkar-
ako kontua
zuzuk jai edo
in ohi dute,
santotoma-
etan. Baina

Edate kontuan ere gustuak daude: batzuek hasteko nahiago izaten dute zerbait arina, garagardoa edo kalimotxoa, esaterako. Badira, ordea, edari horiek «txerrikeriak» direla dionik ere.

Dena den, gazteen artean arrakasta itze-
la izaten dute askotariko likoreez egindako konbinatuak; besteak beste, gerezizko likore-
rea coca-colarekin nahastuta, *gin-kasa* edo likore hutsak. Hala, likoreak saltzen dira gehien.

«nahiz eta edaria, kasu askotan, okerragoa eta garestiagoa» izan. Dena den, bakoitzaren egoeraren arabera izaten omen da hori.

Zein ote irtenbidea?

 Geroz eta garrantzi gehiago hartzen ari da *botilatzarraren* fenomeno, eta hori debekatzeko neurriak ere hartzen hasiak dira dagoeneko. Elkarrizketatutako gazte baten iritziz, «zerbait egin behar dela garbi dago, baina batzuek besteak izorratzea ere». Gazte horren esanetan, debekatzea ez

kutan, edaria garestia izateaz gain, ez da

ona oso izaten. Askoz gehiago ordaindu eta gutxiago edaten duzu»

atero elkar-
zein txarra

izaten dute
oki handie-
joaten dira
altokietatik
guztietako
an, 14 urte

po gainditu
buruak lor-
edari alko-
patzen dute
dizkien nor-
e ezaguna,
rean topatu
umea ere.

Behin edariak eskuratu ostean, biltzeko leku egokia bilatzea izaten da hurrengo zeregina. Normalki, etxeen arkupeetan, enparantzetan, parkeetan edo mendian egiten dituzte euren topaketak. Bertan egoten dira edaria agortu arte, bizpahiru ordu gutxi gorabehera. Ondoren, diskoteka edo tabernetara joateko ohitura izaten dute.

Adin txikoen kasuan, tabernetan-eta ez dutela ezer edaten aitortu digute: «Edariak garestiak izateaz gain, adin txikikoak gara, eta ez digute eskatutakoa ateratzen». Hemezortzi urtetik gorako gazteek, berriz, edaten jarraitzen dutela adierazi digute,

da konponbidea; «adina kontrolatzea oso zaila da, edaria ateratzeko beti moldatzen baita jendea. Gainera, koma etilikoak ez dira gaurko kontua, beti egon baitira, eta aurrera begira ere egongo dira».

Neurri batean «ulergarria» iruditzen zai-
nik ere bada: «Bizilagun askok arrazoi dute iskanbila sortu eta dena zikintzen dugunean».

Zein izango litzateke baina konponbi-
dea? Edarien prezioak jaitea irtenbideeta-
ko bat izan litekeela diote gazteek. Bestalde, gakoa «gazteak elkartzeko leku egokia-
goak jartzea» izango litzatekeela ere esan digute.